BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2018/02/15

# Batzarretako talde guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak Menako Haranean aurrera daroan jarduketearen alde agertu dira

Batzarretako talde guztiak, Zalla eta Burgosko probintziaren arteko mugan dagon Espaldaseca mendiaren tontorraren itxiturea dala eta Menako Haranagaz daukan gatazkan Bizkaiko Foru Aldundiak aurrera daroan jarduketearen alde agertu dira. Aldeko eretxi hori gaur goizean irudikatu da, Elena Unzueta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak Batzordean izan dauen agerraldian.

Gatazkea urriaren 26an sortu zan, Celadilla inguruan abeltzaintzako itxiturea instalau zalako. Puntu hori Bizkaiko lurraldearen mugen barruan dago, 1955eko mugaketaren gaineko espedienteak adierazoten dauenez. Foru Diputatuak orain arte egin diran jarduketa guztiak deskribau ditu, eta Mendi Zerbitzuaren jarduketaren alde agertu da. Horrez gain, Elena Unzueta erakunde guztien arteko kontsentsuaren alde agertu da, prozedura judizialera joan behar ez izateko.

Diputatu andrea, mendiaren Burgoseko aldean be itxiturarik ez jartearen alde agertu da, itxitura horrek kalteak eragin daikezalako leku haretako landaredian eta faunan, aisiarako erabilten dan lekua dalako eta bertan aztarnategi arkeologikoak be egon daitekezalako.

ESKULTUREN PARKEA, LURREN FUNTSA ETA BISOI EUROPARRA BIZKAIAN

Saio berean, Elena Unzuetak Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak egindako beste hiru galderei erantzun deutse. Lehenengoa Zugaztietako eskulturen parkearen, bere zorren eta kudeaketaren ingurukoa izan da. Talde Mistoak, 2007tik kudeaketan gabeziak hauteman diran arren, Meatzalde Goikoa alkarteari lur horreek erabilteko baimena ez kentzearen gaineko azalpenak emotea eskatu deutso Aldundiko arduradunari. Unzuetak autortu dauenez, bere egunean ezarri zan hitzarmenaren baldintzak ez dirala bete esan ezin dan arren, proiektua ez da aurreikusi zan moduan garatu. Holan, proiektua “konpontzekotan dagola” esan dau, “aurrera jarraitzeko interesa daukagulako, agertoki barrian kudeaketa hobea izatea gurako geunkean arren”.

Lurren Funtsa izan da Iraunkortasuneko Batzordean landu dan beste puntuetako bat. Bizkaiko nekazaritzako ustiapenetan belaunaldien errelebua bilatzen dauen Aldundiaren ekimena da. Foru diputatu andreak onartu dau orain arteko emaitzak aurreikusitakoak baino eskasagoak izan dirala, 2017an bederatzi lur lote eskini ziran arren, hiru eskari jaso eta bi baino ez ziralako esleitu. Etorkizunari begira, landa garapeneko alkarteakaz eta nekazaritza arloko sindikatuakaz koordinauta aritzearen alde agertu da Elena Unzueta, bere eretxiz “estrategikoa” dan proiektuan. Dana dala, kontratuan denporaltasuna, *baserritarrek* euren lurragaz daukien loturea, lurren kokalekua eta ustiapenen tipologia aitatu ditu emaitza hoberik ez lortzea eragin daben zergaitien artean.

Saioa bukatzeko, bisoi europarrak Bizkaian bizi dauen egoeraren eta mehatxatutako espezie hori babesteko Aldundiak, Europa mailako LIFE Lutreola Spain egitasmoaren barruan, martxan jarri dituan jarduketen gaineko informazinoa emon dau. Diputatuak adierazo dauenez, 2017ko jarduerak bisoi amerikarraren harrapaketan zentrau dira, eta espezie inbaditzaile horren 183 ale harrapau dira. Unzuetak 2018. urtearen amaierarako atzeratu dau LIFE Programaren emaitzen

azkenengo balantzea, eta programa horren luzapena eskatzeko aukerea aurreratu dau.

---

NOTA DE PRENSA
15/01/2018

# Todos los grupos junteros respaldan la actuación de la Diputación Foral de Bizkaia en el conflicto con el Valle de Mena

Todos los grupos junteros han mostrado su apoyo a la intervención de la Diputación Foral de Bizkaia en el conflicto con el Valle de Mena por el cercamiento de la cumbre del monte Espaldaseca, en el límite de Zalla con la provincia de Burgos. Este respaldo se ha registrado esta mañana en el transcurso de una comparecencia en Comisión de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta.

Este conflicto tuvo su origen el 26 de octubre pasado, debido a la instalación de un cierre ganadero en la zona de Celadilla, un punto que se encuentra dentro de los límites territoriales de Bizkaia de acuerdo con un expediente de deslinde que data de 1955. La Diputada Foral ha descrito todas las actuaciones llevadas a cabo hasta la fecha, y ha respaldado la actuación del personal adscrito al Servicio de Montes. Asimismo, Elena Unzueta ha abogado por un consenso entre todas las instituciones vizcaínas y burgalesas implicadas, a fin de evitar un procedimiento judicial.

La responsable foral ha abogado por evitar el cercado también en la vertiente burgalesa del monte, por los perjuicios que dicho cerramiento pudiera ocasionar para la flora y fauna del lugar, para el uso recreativo del monte y sobre posibles yacimientos arqueológicos presentes en la zona.

PARQUE DE ESCULTURAS, BANCO DE TIERRAS Y VISÓN EUROPEO EN BIZKAIA

En la misma sesión Elena Unzueta ha respondido a otras tres preguntas formuladas por el representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa. En la primera de ellas se ha hecho referencia al Parque de Esculturas de la Arboleda, sus deudas y su gestión. El Grupo Mixto ha instado a la responsable foral a dar explicaciones acerca de la no extinción de la autorización de uso de los terrenos a la asociación Meatzalde Goikoa, tras las deficiencias de gestión observadas desde 2007. Unzueta ha señalado que, aunque no se hayan incumplido las condiciones del convenio establecido en su día, la iniciativa no se ha desarrollado según lo esperado. En este sentido ha señalado que el proyecto "se halla en puertas de una solución, ya que tenemos interés en que siga adelante, aunque esperamos que mejore la gestión en el nuevo escenario".

El Banco de Tierras ha sido otro de los puntos tratados en la Comisión de Sostenibilidad. Se trata de una iniciativa foral que busca el relevo generacional en las explotaciones agrarias de Bizkaia. La Diputada ha admitido lo limitado de los resultados obtenidos hasta la fecha, dado que en 2017 se pusieron a disposición nueve lotes de tierra y se recibieron tres solicitudes, de las cuales se adjudicaron dos. De cara al futuro, Elena Unzueta ha apostado por la coordinación con asociaciones de desarrollo rural y sindicatos agrarios en un proyecto que ha calificado como "estratégico". En todo caso, ha señalado la temporalidad de los contratos, el apego a la tierra de los *baserritarras*, la ubicación de los terrenos y la tipología de las explotaciones como algunas de las causas que han evitado mejores resultados.

La sesión ha finalizado con una intervención en torno a la situación del visón europeo en Bizkaia y las actuaciones puestas en marcha por la Diputación para proteger a esta especie

amenazada, en el marco del Proyecto europeo LIFE  Lutreola Spain. La Diputada foral ha explicado que en 2017 las actuaciones se han centrado en la erradicación del visón americano, con la captura de 183 ejemplares de esta especie invasora. Unzueta ha pospuesto para finales de 2018 el balance final de resultados del Programa LIFE y ha avanzado la posibilidad de solicitar una prórroga del mismo.